

# Eulalia Abaitua, argazkilaria

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*



## 1- Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria

*Entzun arretaz audioa eta esan Eulalia Abaituaren gainean jarraian dituzun baieztapenak EGIA ala GEZURRA diren*

1- Eulalia Abaitua 1953an Bilbon jaiotako argazkilaria izan zen.

- Egia
- Gezurra

2- Maria Elvira Juliana izena zuen berez, baina etxean Eulalia deitzen zioten.

- Egia
- Gezurra

3- Bigarren gerrate karlistaren garaian Bartzelonara joan zen Abaitua familia.

- Egia
- Gezurra

4- Ingalaterrara joan zenean ezkondu egin zen.

- Egia
- Gezurra

5- 1878an Bilbora itzuli zen Eulalia bere senarrarekin.

- Egia
- Gezurra

6- Hasieran mozarrotutako pertsonak bakarrik erretratatzeko zituen.

- Egia
- Gezurra

7- Herriko jendeari eta Bilboko eraikinei ere atera zizkien argazkiak.

- Egia
- Gezurra

8- Eulaliak dirua behar zuelako egiten zituen argazkiak.

- Egia
- Gezurra

9- Denbora asko eman zuen Begoñatik atera gabe, ia bizitza osoa.

- Egia
- Gezurra

10- Eulaliaren argazkietako batzuk hiru dimentsiotan ikusten dira.

- Egia
- Gezurra

11- Abaituaren argazki askotan emakumezkoak dira protagonista.

- Egia
- Gezurra

12- Leku bati baino gehiagori eman diote Eulalia Abaituaren izena.

- Egia
- Gezurra

## 2- Argazkilariaren biografia osatua

Jarraian entzun berri duzun audioaren transkripzioa duzu. Hautatu aditz egokienak hutsuneak betetzeko. Gero, entzun berriro audioa erantzunak konprobatzeko.


# Eulalia Abaitua, Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria

### Bilbon jaiotako emakume argazkilariaren biografia laburra.

Eulalia Abaitua argazkilaria (1853-1943) Bilbon jaio zen. Hiru izen jarri **zituen / zizkieten / zitzaien**: Maria Elvira Juliana, baina etxean Eulalia deitzen **zuten / zitzaien / zioten** neskatxari, bera jaio eta handik gutxira hil zen amaren omenez.

Bartzelonan ikasi **zituen / zen / zuen** Eulaliak. Baina bigarren gerrate karlista hasi zenean ihesi joan behar izan **zuen / ziren / zuten** Abaitua familiak Liverpool-era. Ingalaterran ezkondu zen Eulalia, 19 urterekin, 1872an, eta han, Liverpool hirian, ezagutu eta sakondu **zituen / zen / zuen** argazkilaritzan. 1878. urte inguruan senar-emazteak Bizkaira itzuli **ziren / zuten / zituen**, eta Begoña basilikaren ondoan jarri **zuten / ziren / zituen** bizitzen, eginarazi **zieten / zuten / zituen** ingeles estiloko txalet batean. Sotoan argazki-laborategia jarri zuen Eulaliak.

Hasieran etxekoei egiten **zituen / zien / zizkien** argazkiak: sendikoei, neskameei, haurtzainei, lorezainei, sukaldariei, umeen irakasleei... Argazkia egin soilik ez, mozorrotzeko ere eskatzen **zien / zizkien / zituen**, behar bazen, eta argazkirako tokia ere prestatu egiten zuen.



Erromes euskaldun baten argazkia. Begoña, 1900. Bilboko Euskal Museoaren artxibategia.

Herri xehea ere islatzen du argazkietan Eulaliak: Erribera azokako sardina-saltzaileak, Ibaizabal bazterreko arropa-garbitzaileak, edo esnezaleak, arrantzaleak...

Jendeaz gain, Bilboko arkitektura ikus **dezake / ditzake / daiteke** bere argazkietan, edo orduko ohiturak eta festak. Esate baterako, erlijio-festak, zeren Begoña basilikatik gertu bizi zenez, oso eskura zuen festa-giro hura, eta hara hurbiltzen **zen / zuen / zitzaion** handi-jendea erretratatzera.


Baina handi-jende hori Eulaliaren etxera ere joaten zen. Garai hartako burges familia bat zen berea. Ez zuen sekula estutasun ekonomikorik ezagutu, eta horregatik bihurtu **zen / zuen / zitzaion** Eulaliak argazkilaritza, edo kazetaritza grafikoa, bere afizio. Ona zen bere zaletasunean: bere lana ikertu dutenek esaten dute nahiko argazki onak egiten **zituela / ziola / zirela**.

Esan dugu Begoñarekin lotura oso estua izan zuela, baina ezin da esan Begoñatik mugitu ez zenik. Alde batetik, Bilboko erdigunean ere bizi izan zelako, eta bestetik, leku askotan ibili zelako argazkiak egiten: Arratia bailaran, Sestaon, Lekeition, Ondarroan, Donostian, Madrilan, Malagan, Lourdesen, Venezian, Kretan...

Eulalia Abaitua 1943an hil zen. Hil ondoren bere hainbat argazki geratzen **zaizkigu / zituen / zizkigun** Bilboko Euskal Museoan, argazkien herena, adituen ustez: 2.500 argazki; batzuk plaka estereoskopikoak dira. Plaka hauetan argazkia hiru dimentsiotan ikusten da.

2.500 argazki horietan emakume asko ageri **ditu / zaizkie / dira**; agian anonimotasunetik atera nahi izan **zituen / ziren / zuen** bilbotarrak. Bere izena ere ezezaguna izan zen, zeren argitaratu diren hainbat irudiren argazki-oinetan “Señora de...” gisara ageri dira, senarraren abizenarekin, alegia.

Baina senarraren abizena ez, baizik eta Eulalia Abaitua izen-abizenak dituzte, besteak beste, Bilboko kale batek, Guadalajarako beste batek eta Madrileko Valdemoro herriko biribilgune edo glorieta batek.



### 3- Itzal handiko emakumeak

*Ezagutzen al duzu bere arloan aintzindaria izan den beste emakumerik? Ezagutzen al duzu artean, zientzian edota kirolean nabarmendu den emakume euskaldunik? Ezagutzen baduzu, kontaiguzu; eta ezagutu ezean bilatu informazioa eta idatzi irakurri duzunaren moduko itzal handiko emakumen baten biografia laburra.*



## 1- Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria

1- *Eulalia Abaitua 1953an Bilbon jaiotako argazkilaria izan zen.*

- Gezurra

2- *Maria Elvira Juliana izena zuen berez, baina etxean Eulalia deitzen zioten.*

- Egia

3- *Bigarren gerrate karlistaren garaian Bartzelonara joan zen Abaitua familia.*

- Gezurra

4- *Ingalaterrara joan zenean ezkondu egin zen.*

- Egia

5- *1878an Bilbora itzuli zen Eulalia bere senarrarekin.*

- Egia

6- *Hasieran mozorrotutako pertsonak bakarrik erretratatzeko zioten.*

- Gezurra

7- *Herriko jendeari eta Bilboko eraikinei ere atera zizkien argazkiak.*

- Egia

8- *Eulaliak dirua behar zuelako egiten zituen argazkiak.*

- Gezurra

9- *Denbora asko eman zuen Begoñatik atera gabe, ia bizitza osoa.*

- Gezurra

10- *Eulaliaren argazkietako batzuk hiru dimentsiotan ikusten dira.*

- Egia

11- *Abaituaren argazki askotan emakumezkoak dira protagonista.*

- Egia

12- *Leku bati baino gehiagori eman diote Eulalia Abaituaren izena.*

- Egia

## 2- Argazkilaria biografia osatua

### Eulalia Abaitua, Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria

#### Bilbon jaiotako emakume argazkilaria biografia laburra.

Eulalia Abaitua argazkilaria (1853-1943) Bilbon jaio zen. Hiru izen jarri zizkioten: Maria Elvira Juliana, baina etxean Eulalia deitzen zioten neskatxari, bera jaio eta handik gutxira hil zen amaren omenez.

Bartzelonan ikasi zuen Eulaliak. Baina bigarren gerrate karlista hasi zenean ihesi joan behar izan zuen Abaitua familia Liverpool-era. Ingalaterran ezkondu zen Eulalia, 19 urterekin, 1872an, eta han, Liverpool hirian, ezagutu eta sakondu zuen argazkilaritzan. 1878. urte inguruan senar-emazteak Bizkaira itzuli ziren, eta Begoña basilikaren ondoan jarri ziren bizitzen, eginarazi zuten ingeles estiloko txalet batean. Sotoan argazki-laboregia jarri zuen Eulaliak.

Hasieran etxekoei egiten zizkien argazkiak: sendikoei, neskameei, haurtzainei, lorezainei, sukaldariei, umeen irakasleei... Argazkia egin soilik ez, mozorrotzeko ere eskatzen zien, behar bazen, eta argazkirako tokia ere prestatu egiten zuen.

Herri xehea ere islatzen du argazkietan Eulaliak: Erribera azokako sardina-saltzaileak, Ibaizabal bazterreko arropa-garbitzaileak, edo esnezaleak, arrantzaleak...

Jendeaz gain, Bilboko arkitektura ikus daiteke bere argazkietan, edo orduko ohiturak eta festak. Esate baterako, erlijio-festak, zeren Begoña basilikatik gertu bizi zenez, oso eskura zuen festa-giro hura, eta hara hurbiltzen zen handi-jendea erretratatzera.

Baina handi-jende hori Eulaliaren etxera ere joaten zen. Garai hartako burges familia bat zen berea. Ez zuen sekula estutasun ekonomikorik ezagutu, eta horregatik bihurtu zuen Eulaliak argazkilaritza, edo kazetaritza grafikoa, bere afizio. Ona zen bere zaletasunean: bere lana ikertu dutenek esaten dute nahiko argazki onak egiten zituela.

Esan dugu Begoñarekin lotura oso estua izan zuela, baina ezin da esan Begoñatik mugitu ez zenik. Alde batetik, Bilboko erdigunean ere bizi izan zelako, eta bestetik, leku askotan ibili zelako argazkiak egiten: Arratia bailaran, Sestaon, Lekeition, Ondarroan, Donostian, Madrilen, Malagan, Lourdesen, Venezian, Kretan...

Eulalia Abaitua 1943an hil zen. Hil ondoren bere hainbat argazki geratzen zaizkigu Bilboko Euskal Museoan, argazkien herena, adituen ustez: 2.500 argazki; batzuk plaka estereoskopikoak dira. Plaka hauetan argazkia hiru dimentsiotan ikusten da.

2.500 argazki horietan emakume asko ageri dira; agian anonimotasunetik atera nahi izan zituen bilbotarrak. Bere izena ere ezezaguna izan zen, zeren argitaratu diren hainbat irudiren argazki-oinetan "Señora de..." gisara ageri dira, senarraren abizenarekin, alegia.

Baina senarraren abizena ez, baizik eta Eulalia Abaitua izen-abizenak dituzte, besteak beste, Bilboko kale batek, Guadalajarako beste batek eta Madrileko Valdemoro herriko biribilgune edo glorieta batek.